

Emakumeek kontzejuetan duten parte hartzea izango da gai nagusia Arabako Foru Aldundiak martxoaren 8a dela eta egingo duen kanpainan

“Emakume gehiagorekin, gure kontzejuak irabazle” da Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta hautatutako leloa

Emakumezko lau foru diputatuek eta AKE eta GKEko ordezkariak eman dute ekitaldien berri

Gasteiz, 2019ko martxoaren 4a. “Emakume gehiagorekin, gure kontzejuak irabazle” da Arabako Foru Aldundiak martxoaren 8an izango den Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta aurten aukeratu duen leloa. Efemeridea gogorarazteko, foru erakundeak hainbat ekimen jarri ditu abian, lurraldeko kontzejuetan eta administrazio batzarretan “aktiboki parte hartzen duten emakumeen lana aitortzeko eta ikusarazteko”.

“Halaber, gure helburua da, kanpainaren bidez, emakumeak kontzejuetako erabaki eremuetan parte hartzera bultzatzea”, adierazi du María Pilar García de Salazar Olano diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuak gainerako emakumezko foru diputatuekin batera eman duen prentsaurrekoan: Marian Olabarrieta, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, eta Igone Martínez de Luna, Euskara, Kultura eta Kirol saileko foru diputatua. Arabako Kontzeju Elkarteko (AKE) presidente Joseba Terreros eta Gasteizko Kontzeju Elkarteko (GKE) presidente Miren Fernández de Landa ere izan dira prentsaurrekoan.

Diputatu nagusiordeak nabarmendu duenez, “kontzejuak Arabako tokiko lurralde antolamenduko eremu berezia dira. Mendetan emakumeak izan dira gure herrien euskarria eta oraindik ere hala dira. Baina haien lana ezkutatuta eta isilean gordeta egon da eta ezin izan dute parte hartzeko, erabakiak hartzeko eta gauzak kudeatzeko eremuetan egon. Azken hamarkadetan gure herrietako emakumeek aurrerapauso handia eman dute eta, egun, herriak bizirik iraunarazteko eragile aktibo eta ezinbestekoak dira. Hala ere, desoreka nabarmena da oraindik ere”, erantsi du.

Kontzejuetako administrazio batzarretako hautetsien % 24 besterik ez da emakumezkoa. Eta ia kontzejuen erdietan ez zen emakumezko hautetsi bakar bat ere 2007ko hauteskundearen ostean. “Oraindik oso urrun gaude indarrean dagoen berdintasun legeak oreka lortzeko markatzen duen % 40tik”, azaldu du Pilar García de Salazarrek.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Aldundiaren kanpainaren helburua da, batetik, “herritarren erdia erabaki eremu guztietan, baita kontzejuetan ere, ordezkaturik dagoen gizartea lortzea”, eta bestetik, “oztopoak gaintitu eta kristalezko sabaiak hautsi eta kontzejuetan parte hartu zuten lehen emakumeen lana aitortzea. Haiei esker, gero eta emakume gehiagok hartzen dute parte administrazio batzarretan”.

Aurtengo kanpainarako kartelaren erdialdean hainbat emakume aurpegi ageri dira eta eskua ematen diote elkarri, gure herrien aldeko talde lanaren sinbolo gisa. Emakumeen arropetan soro landuak, herriak, mendia eta lurra agertzen dira.

Erakunde ekitaldia larunbatean

Foru erakundeak urteurren honekin duen konpromisoak, halaber, erakunde kanpaina bat izango du, hedabideetan ere proiektatuko dena, bai eta foru autobusetan ere. Eta Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, biharko Foru Gobernu Kontseiluak erakunde adierazpen bat onartuko du.

Ekimen horien amaiera ekitaldia hilaren 9an, larunbata, izango da 11:00etan, Gasteizko Artium Museoa. Dolores Juliano antropologoak *Emakumeak, diskurtsoak eta isiluneak* hitzaldia emango du eta, ondoren, mahai ingurua egingo dute Arabako kontzejuetako emakume ordezkariak. Ramiro González Arabako diputatu nagusiak emango dio amaiera ekitaldiari, kontzejuetan aitzindari izan ziren emakumeei aitortpena eginez.